

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak behar bezala funtzionatzeko, hainbat funtsezko baliabide beharko ditu. Baliabide horiek gure produktua garatu, ekoitzi eta bezeroengana iritsi ahal izateko ezinbestekoak dira.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak beharrezkoak izango dira. Horien artean lantokia, ordenagailuak eta telefono mugikorrak daude. Gainera, giltzatak diseinatu eta ondo funtzionatzen duela ziurtatzeko material teknologikoa beharko dugu. Baliabide hauei esker, produktua sortu, probatu eta hobetzeko aukera izango dugu.



Ondoren, baliabide intelektualak oso garrantzitsuak izango dira. Baliabide honi esker, gure ideia diseinatu, aplikazioa garatu eta lokalizazio-sistemaren funtzionamendua sortuko dugu. Horrez gain, marka eta diseinu propioa izateak gure produktua besteengandik bereizten lagunduko digu.



Giza baliabideak ezinbestekoak izango dira. Taldekideek informatikako eta diseinuko oinarritzko ezagutzak izango dituzte, eta baita produktua saltzeko eta bezeroei arreta emateko gaitasuna ere. Proiektua aurrera eramateko, talde-lana ezinbestekoa izango da.



Azkenik, finantza-baliabideak beharko ditugu. Materiala erosteko, aplikazioa garatzeko eta produktua merkatura ateratzeko hasierako inbertsioa beharrezkoa izango da. Lortutako dirua bankuan gordeko dugu, salmentetatik ateratako etekinak barne.



Ondorioz, baliabide guztiak erabilia, gure produktua sortu eta merkaturatzeko aukera izango dugu.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Edenred. (s. f.). *¿Qué son los recursos empresariales y cómo planificarlos?* Edenred.
<https://www.edenred.mx/blog/que-son-los-recursos-empresariales-y-como-planificarlos>

ISDI Education. (s. f.). *¿Qué son los recursos financieros?* ISDI Education.
<https://www.isdi.education/es/blog/recursos-financieros-que-son>

OBS Business School. (2018). *Recursos en la gestión de proyectos: más allá de los recursos humanos y materiales*. OBS Business School.
<https://www.obsbusiness.school/blog/recursos-en-la-gestion-de-proyectos-mas-alla-de-los-recursos-humanos-y-materiales>

Py + Editorial Team. (s. f.). *¿Qué es el capital intelectual y ventajas?* Pymas.
<https://www.pymas.com.co/ideas-para-crecer/recursos-humanos/que-es-capital-intelectual-y-ventajas>

Sydle. (s. f.). *Gestión de recursos humanos*. Sydle.
<https://www.sydle.com/es/blog/gestion-de-recursos-humanos-61240605b060f5760424b13e>

Web y Empresas. (s. f.). *¿Qué es el capital intelectual?* Web y Empresas.
<https://www.webyempresas.com/que-es-el-capital-intelectual/>